



Olentzaroren etorrera, Erregeen kabalgata, eguberrietako egitarau berezia... guztia erdiko orrialdeetan

EGUBERRIAK

Eguberrien atarian, Bertsolari Txapelketa Nagusiaren finala

Andoaingo eta Urrietako bertsozaleak Aiurrik antolaturiko autobusean abiatuko dira Barakaldora.

Aitor Mendiluze andoaingarriaren finaleko ohol-tza gainean izango da eta, ikusleen artean, eskualdeko bertsozale ugari. Mendiluzek edizio honetan antolatzaile eta parte hartzaile lanak uztartu ditu. Txapelketa hau borobila izaten ari da bertsolarien mailari eta zaletuen artean sortu duen ikusminari dagokionez. Bi aldiz pozik egoteko arrazoia du, beraz.

Finalera begira hauxe adierazi dio Aiurri, "Pentsatzen dut aurreko edizioan buruz burukoan geratu ziren bi lagunak [Egaña eta Lujanbio] izango direla faborito. Inkognita dira oraindik, ez dutelako txapelke-



tan kantatu. Baina nik nire burua ez dut faboritotzat inoiz jo eta benetan uste dut ez naizela faborito".

EGUBERRIAK ATE JOKA

Bertsolari Txapelketako Finala eguberriaren atarian izango

da. Dagoeneko eskualdean ari dira urte amaierako ekitaldiak antolatzen. Irudian, Urrietako ikasleak kantari.

Azken agurra Unai Otamendiri



Agur sentikorra eskaini zioten joan zen asteazkenean Unai Otamendi Otegi Andoaingo gazte mendizaleari. Familia, lagunak eta herritar ugari bertaratu zen San Martin elizara.

(3. orrialdean jarraitzen du)

Andoaingo

- Andoaingo soinujoleak.
- "Vaya Semanita" kideak herrian.

2. or.
3. or.

Urnieta

- Moulinexen langileak burrukan.
- Urka-Mendi afera.

4. or.
5. or.

Eguberriak

- Jaiak jarraitzeko egitaraua, argazki eta guzti.
- Gehigarri berezia

Agenda

- Datozen egunotako hitzordurik interesgarrienak.

7. or.

Dagoeneko salgai 2006. urteko egutegia

Urrietako erretratu zaharrek egina



Urrietako Udalak diruz lagundutako ekimena

Hilabete gutxira argitaratuko den liburuaren aurrerapena

Eskuragarri:

Aiurri, Lekaio, okindegiak: Urnieta, Labetxo, Adarra. Gaztelo gozotegia, Idiazabal liburudenda.

Harpidedun laguntzaile baldin bazara:

2006 urteko egutegia doan eskuratu ahal izango duzu San Juan Plazako egoitzan, goizetan.

LAN DEIALDIA:

HEDABIDE ETA IRAGARBIDE ENPRESAK BATEK

Kazetaria behar du

Beharrezkoa:

- Kazetaritzan lizentziatua izatea.
- Euskara hutsez lan egiteko gaitasun erabatekoa.

Baloratuko da:

- Euskarazko hedabide idatzietan izandako eskarmentua.
- Lantaldeak zuzentzeko eta erredakzio lana antolatzeko ahalmena.

- Jardun idatzian egindako beste lan batzuk.
- Kazetaritza jardunari loturiko ikastaro edo jarduerak osagarriak.

Eskainiko da:

- la lanegun osoko lan-kontratua (6 ordu).
- Sektoreko lan-hizarmenaren araberrako soldata.

Bidal bezaguzu zure Curriculum vitae-a helbide honetara:

KAZETARI LANPOSTUA • 44. postakutxa • 20.150 AMASA-VILLABONA




Ez dago arazorik, irtenbideak baizik

Hedabideak sortu,
garatu eta kudeatu

Argitalpenak taiutu,
ekoiztu eta
euskaldundu

Erroitz, b.m.
Beterriko hedabide eta iragarbideak
Dr. Huizi kalea, 15
20.140 Andoain - Gipuzkoa



Leitzaran Bolei Taldeak estatuko hainbat talde gonbidatu ditu

Maila oneko bolei partidak Eguberrietan



Seniorrak Kataluniako eta Aragoeko aurkariak izango dituzte abenduaren 28an jokatu den txapelketan.

Urtero bezala, Emakumezkoen Eguberrietako Txapelketa Berezia antolatu du **Leitzaran Bolei Taldeak**. Udaleko Kirol Sailaren babesarekin, aurtentzen Kantabriako, Kataluniako eta Aragoeko taldeak gonbidatu dituzte. Boleia maite dutenentzat edota bolea gertutik ezagutu nahi dutenentzat aparteko aukera izango da abenduaren 28an Allurralde kiroldegian.

Andoaingo kadete taldea Kantabriako **Astillero** eta Kataluniako **Rubi** taldeen aurka lehiatuko da. Seniorrak berriz, **Zaragozako** Unibertsitatea eta **Rubi** taldeak izango ditu au-

rrez aurre. Goizeko hamarretan hasita partida ugari jokatuko da.

Aurtengo txapelketan erabakitzekeo ligaska jokatuko dute gazteetxoek. Senior mailako bi talderik onenak arratsaldeko lauretan egingo den finalean lehiatuko dira.

ADISKIDETASUNA

Argi dago horrelako egunak adiskide berriak egiteko proposak direla. Eguerdian, partaide guztiek elkarrekin bazkalduko dute. Hura izango da harremana estutzeko unerik egokiena.

Kantabriako, Kataluniako eta Aragoeko taldeak gonbidatu dituzte edizio honetan. Mutilen arteko partida ere izango da

MUTILEN ARTEKO PARTIDA

Egunari amaiera emateko, mutilen arteko lehia jokatuko da Allurralden arratsaldeko seietatik aurrera. **Hernani** eta **Atlético San Sebastian** buruz buru arituko dira, egunari amaiera bikaina emanez.

Maila bikaina erakusten ari dira Soinuak taldeko musikariak

Andoaingo soinujoleak

Soinuak Musika Eskolako ikasleak maila bikaina erakusten ari dira parte hartzen ari diren emanaldi guztietan. Azken erakustaldia Arrasaten izan zen, junior mailako Gipuzkoako akordeoi lehiaketan. Eskolako arduradunek Arrasatera joandako guztien artean izandako elkarbizitza nabarmendu dute. Gurasoak, irakasleak, lagunak eta akordeoilariak giro ederrean ibili ziren abenduaren hiruan eta lauan.

Giro horrek zerikusia izango zuen akordeoilariak lortu zuten emaitza. Maila eta kategoria ezberdinetan, Andoain-



Maddalen Aizpurua eta Aitor Ugalde, sari banaketan.

dik joandako akordeoilari gehienek domina lepoan zutela itzuli ziren. Hauexek dira partaideak: **Garbiñe Guedejo** (A

maila, zilarra), **Miren Ibañez** (B maila, zilarra), **Leire Andreu**, **Egoitz Ikutza**, **Idoia Mikelez** eta **Imanol Ugalde** (C maila, zilarra), **Aitor Ugalde** eta **Maddalen Aizpurua** (C maila, urrea).

Junior mailan **Itsaso Mungia** seigarren izan zen eta **Paula Puente** bederatzigarren.

Zorionak, lerrootatik, Soinuak Musika eskolakoei.

OLAGAINEN EMANALDIA

Abenduaren hogeita hiruan Soinuak Musika Eskolako ki-deek kontzertua eskainiko dute.

Euskara Zerbitzuak herritarren parte hartzea sustatu nahi du

Euskaldunen eskubideak bermatzeko ekimena



Euskaldunen erroldan daudenek opari polita jaso dute etxean.

Udaleko Euskara zerbitzuak **“Euskara indarrean jarriko dugu... zuk indar egiten badiguzu!”** kanpainaren beste alderdi bat martxan jarri du, Udalarekin harremanak euskara hutsean nahi dituzten herritarrek Udalak hartutako konpromisoen betetze mailaren jarraipenean parte har dezaten. Izan ere, kanpaina honen helburua herritarrek parte hartzea da.

Euskara zerbitzuak euskaraz bizitzeko hautua egin duten herritarren eskubideak betetzen direla bermatu nahi du. Hauen satisfakzio maila jakin nahian, gogoz hartuko litzukete herritarren kezak, txaloak edota iradokizunak. Udal barruan euskararen erabilera bultzatzen jarraitzeko Euskara

Zerbitzuak beharrezko du herritarren laguntza.

Euskara indarrean jartzeko konpromisoa du Udalak baina gerta daitezke (zoritzarrez, gertatzen da) gorabeherak.

Euskara Zerbitzuak Udalarekiko harremanak euskara hutsean izan nahi dituzten 4.501 herritarrengana jo du Udalaren hizkuntz jokabidearen jarraipena egiteko laguntza eske. Baina, edozein herritarrek txalotu edo sala ditzake eguneroko bizitza euskaraz egiteko lagun-garri edo oztopo gertatzen diren Udalaren hizkuntz jokabideak.

Egun hauetan euskaldunen erroldan dauden etxeko buzoiraino iritsi da kanpaina honen informazio zehatza. Ez da aldi jakin baterako kanpaina, etenik

Udal barruan euskararen erabilera bultzatzen jarraitzeko Euskara Zerbitzuak beharrezko du herritarren laguntza

ez du izango euskaldunen eskubideak babesteko ekimenak.

NORA JO

Kexak, txaloak edota iradokizunak jasotzeko bidea hauxe da:

euskaraindarrean@andoain.org
Euskara Zerbitzua
Andoaingo Udala
Goikoplaza z.g.
20.140 Andoain
Tf.: 943 300 830 (Xabier)
Faxa: 943 300 828

IDOIAGA-ZABAL ETA ZINZURRITZ EREMUAK, HERRI LURRAK AURRERANTZEAN



Donatxele edo Dorronsola bezala ezaguna zen baserriaren inguruko eremuak Andoaingo Udalaren esku geratuko dira, joan zen ostegunean Espainiar estatuko ordezkariekin sinatu zen hitzarmen-akordioaren arabera.

Lur eremu handia da, denera 56.289 m². Andoaingo Udaletxeko batzar aretoan jakinarazi zen erabakia eta bertan izan ziren Udaletxeko ordezkari nagusiak, Gipuzkoako Foru Aldundiko Ogasun saileko eta Espainiako Gobernuordezkari bana.

Unai Otamendiri azken agurra



Asko eta asko izan ziren mendizalea agurtu nahi izan zuten herritarrek.

Agur sentikorra eskaini zioten joan zen asteazken arratsaldean Unai Otamendi Otegi Andoaingo gazte mendizaleari. Familia, lagunak eta herritar ugari bertaratu zen San Martin elizara.

Gaztetxo zela, txirrindularitza murgildu zen Andoaingo Txirrindulari Elkartean. Gerora, mendizaletasuna izan zen bere afi-

ziorik handiena. Euskalduna Mendigoizale Taldeko kide zen eta asko ibili zen mendian, Euskal Herrian nahiz atzerrian.

Aiurri.com gunean Joxean Azkue Arrastoa asteasuarraren eta Unai Otamendi Otegiaren ibilbidea aurki daiteke. Hamaboskaria etxean jasotzen ez dutentzat, bertan dago informazio guztia.

Vaya Semanitakoak Andoainin



Vaya Semanitako kideak

ETB2-ko bigarren kateak aurkezle eta aktoreak Andoaingo Bideo eta Zinema eskolan izan ziren abenduaren hamabostean. Arratsaldean eginiko saioan, ikasleen aurrean programaren inguruko bizipen eta bitxikeri ugari azaldu zuten.

AURPEGI BERRIAK

Ikasturte berrian goitik bererako aldaketa izan da programaren baitan. Gehie-

nak *Made in China* programa egitera igaro zirenez, programa umezurtz geratu zela esan daiteke. Hori gutxi balitz, ikusleen erantzuna apala izan zen denboraldi berriko lehen saioetan.

Ordea, gauzak aldatuz joan dira eta pixkanaka audientzia irabazten ari da “Vaya Semanita” programa. Andoaingo ikasleek luxuzko gonbidatuak izan dituzte azken boladan.

Moulinexeko langileen borroka



Elkarretaratzeak egiten dituzte langileek enpresaren aurrealdean.

Urrietako Moulinex enpresako langileak hainbat protesta ekitaldi burutzen ari dira azken egunetan. Gaur egungo egoerari lan irtenbide berria ematea eskatzen dute. Guztira 176 langile hartzen ditu bere baitan Moulinex lantegiak eta azken lan erregulazio planaren ondorioz horietako 76ren kanporaketa aurreikusten da. Integración de Servicios Navarros (ISN) taldeak erosi du Moulinex eta erosketa horren haritik etorri da lan erregulazio plan berria.

LAN HITZARMEN BERRIA

Euren lanpostuak mantenduko lituzketen 100 langileek ere aldaketa handiak sumatuko dituzte etorkizunean. Izan ere, Moulinexen erosketaren ondorengo lehen hilabetetan zehar elektrotresna txikiak egiten jarraituko badute ere, poliesterra egitera pasako dira ondoren. Horrekin batera, lan baldintzak ere aldatu

egingo dira. Orain arte, metaleko lan hitzarmenaren pean aritu dira lanean Moulinexeko langileak, baina aurrerantzean kimikako sektorean aritzen diren langileen baldintzak biltzen dituen hitzarmenarekin arituko dira. Sindikatuen arabera, aldaketa horrek, soldaten jaitsiera eta antzineko-tasunaren galera ekarriko die langileei. Aldaketa horien guztien aurkako protestak egiten ari dira egunetan Moulinexeko langileak. Lantegiaren aurrean hainbat elkarretaratze egin dituzte dagoeneko eta Donostian ere izan ziren manifestazio baten bidez euren aldarrikapenak ezagutarazten.

Gaur egun, Moulinex enpresan lanean aritzen diren batzuek besteko adina 52 urtekoa da eta gehiengoa emakumez osatuta dago. Langileetako askok 30 urte baino gehiago daramate Urrietako Moulinex enpresan lanean.

Doan banatuko da liburua abenduaren 19tik aurrera

Urrietako etxe eta baserriak irudi bidez



Herriko lau auzoetako baserriak aurki daitezke liburuan.

Urrietako baserrien eta etxeen argazkiak biltzen dituen liburua aurkeztuko da. **Urrietako etxe eta baserriak 2005** izenburupean, herriko lau auzoetako baserriak aurki daitezke liburuan: Ergoien, Lategi, Goiburu eta Oztaran.

Argazki liburu honekin, garai batean Teresa Amuategik idatzitako "Urrietako etxe eta etxebizitzak" liburuan biltzen diren deskribapenak grafikoki osatu nahi izan dira.

ASTELEHENETIK AURRERA ESKURA

Urrietako Udalak argitaratu du liburua eta abenduaren 19tik aurrera herritar guztiek

Ostiral honetan aurkeztuko da liburua goizeko hamaika eta erdietan Udaletxeko Batzar aretoan

izango dute hura etxean izateko aukera, izan ere, Udalak doan banatuko baitu gabonetako egutegiarekin batera.

Abenduaren hamaseian, ostiralarekin, egingo da liburua-aren aurkezpena Urrietako udaletxeko Batzar Aretoan. Aurkezpenean Udala ordezkari gorenak izango dira eta haiekin batera Marijo Henriques Udala Artxiboko arduraduna.

Urte honetan udal artxibotik



hainbat lan bideratu da. Urrutira joan gabe, Oria auzoaren inguruko liburua aurkeztu zen martxoan. Bardajik idatzitako "Oriako nire oroitzenak" aurkeztu zen orduan.

Bigarren eskuko azoka



Abenduaren 4an egin zen San Markos Mankomunitateak antolatutako bigarren eskuko produktuen azoka. Jende ugari hurbildu zen frontoian jarritako postuak ikustera.

UKE taldekoak oro har maila ona ematen ari dira

Asteburuko futbol partidak

Oro har emaitza onak lortu ditu UKE taldeak. Jubenil taldeak berdinketa lortu zuen eta besteak garaile atera ziren.

EMAITZAK

Erregionala, 1.maila
UKE 2 – Ostadar 1
Emakumezkoak
UKE 6 – Euskalduna 0
Jubenilak, 1.maila
Santo Tomas 2 – UKE 2
Emakumezkoak F8
Allerru 0 – UKE 5

ASTEBURUARI BEGIRA

Lehen taldeak Irunen jokatuko du igandean Mariño taldearen aurka. Etxetik kanpo ere arituko da emakumezkoen lehen taldea, Donostiako Berio auzoan Luberriren aurka. Kadeteak berriz larunbata honetan lehiatuko dira Zumaiako taldearen aurka, goizeko hamaiketatik aurrera.

Hauexek dira Urrietan jokatuko diren partidak:

Infantilak, 1.maila
UKE-Hernani
10:00, larunbata

Emakumezkoak F8
UKE-Beasain
11:30, larunbata

Jubenilak, 1.maila
UKE-Idiazabal
17:00, larunbata

Esan beharrik ez dago animoak beharrezkoak direla.



Aiurri

Gabonak

2005



* **Argazkiak**
K/Nagusia 19 943.300727

Zorionak
eta urte berri on!

Digital@
P/Zumea 6 943.590888

Gabonak Aiztondo

Zizurkil

Abenduak 21, asteazkena

Loatzo Musika Eskolaren Eguberrietako **kontzertua** 19:00, Arantzazuko Amaren eliza

Abenduak 21, asteazkena

Elizpe Jubilatuta Elkarteak antolatuta **txistorra jatea** Elkartearen egoitza, 18:00

Abenduak 24, larunbata

San Millan Ikastetxeko umeek baserrietan abestuko dute eta Pedro M^a Otaño eta Jesusen Bihotza Ikastolako umeek Elbarrrena auzoa alaituko dute. Ondoren, Urkamendi Elkartearen **hamaiketakoa**

Abenduak 26, 27, 28, 29, 30

Urtarrilak 2, 3, 4

“**Gabonetan Jolasean**” 9:30etatik 13:00etara. Izen emateak abenduaren 19a baino lehen

Abenduak 26, astelehena

Kukubiltxoren “**Dir-dir**” emanaldia 17:00, Atxulondo Kultura Etxea

Abenduak 31, larunbata

Urte Zaharreko Lasterketa. Antolatzaileak: Urkamendi eta Zumbeltz Elkarteak. Irteera eta helmuga Urkamendi elkartearen parean. 16:00 haurrak 16:30 gazteak eta helduak

Abenduak 31, larunbata

Manifestaldia. Aiztondo bailara giza eskubide guztien alde lemapean manifestazio isila egingo da Zizurkilgo Joxe Arregi plaza-tik Amasa-Villabonako Errebote plazara, arratsaldeko 19:00etan. Aduna, Zizurkil, Larraul, Amasa-Villabona eta Alkizako Udalen babesarekin



Geroz eta haur gehiago dago Larraulen. Eguberri hauetan ere kantari irtengo dira abenduaren hogeita lauan.

Urtarrilak 3, asteartea

Donostiako Jolas Parkera irteera, “**Gabonetan jolasean**”.

Aduna, Larraul

Abenduak 24, larunbata

Haurrak kantari ibiliko dira etxez etxe. Herritar talde bat ere kantari arituko da.

Abenduak 29, osteguna

Donostiako "PIN" parkera joateko irteera. Larraul, Aduna eta Alkizako 2 eta 5 urte bitarteko haurrentzat prestaturiko egun erdiko txangoa. Izena emateko: Aiztondoko bulegoetan (943 693 930) Abenduak 22an baino lehen.

Urtarrilak 4, asteazkena

Goizez, Donostiako "PIN" parkera eta arratsaldez **Txuri Urdinera.** Larraul, Aduna eta Alkizako 6 eta 12 urte bitarteko gaztetxoek parte hartu ahal izango dute irteera honetan. Izena emateko: Aiztondoko bulegoetan (943 693 930) abenduaren 22a baino lehen.

Asteasu

Abenduak 24, larunbata

Haurrak kantari ibiliko dira goiz guztian zehar, kalez kale eta baserriz baserri



Amasa-Villabonan, Olentzaroren etorrera.



Eresagrikoak aurten ere kantari irtengo dira.

Pintura orokorraren erabilera

Eguberri on!

GOIATZ

• Fatxadak • Dekorazio pinturak • Burnia • Hondar zorrotadaz harri garbiketa • Birgaitze lanak

Errota, 6, 2. ezk. • AMASA-VILLABONA • Tel.: 943 693 101 - 609 143 713 • Faxe: 943 693 101



ORMENDI KIROLAK

GABONETAN LARUNBAT ARRATSALDEZ IREKITA

Zorionak eta urte berri on!

Kale Berria, 2 • Telf./Faxe: 943 591 806
20140 Andoain (Gipuzkoa)

bailekaran



Asteasun arrakastarik handiena izan ohi du Errege Kabalgatak.

Olentzaro frontoian
Eguerdian.

Urtarrilak 5, osteguna

Errege magoen desfilea
20:30etan.

Amasa-Villabona

Abenduak 20, asteartea

Eresargi abesbatzak **eguberrietako emanaldi berezia** eskainiko du elizkizuna eta gero, Villabonako elizan.

Abenduak 22, osteguna

Loatzoko ikasleen **kontzertua**,
19:00, Gurea.

Abenduak 24, larunbata

Herriko talde ezberdinak ka-

lez kale kantuan ibiliko dira
egun guztian zehar.

eta Zunbeltz Elkartek.
16:30

Olentzaro eta Mari Domingi
Otsabitik Errebote plazarai-
no kalejiran, 18:00.

Urtarrilak 1, igandea

Urte berriari hasiera emate-
ko, **Loatz mendira igoera**

Abenduak 31, larunbata

Urte Zaharreko Lasterketa.

Antolatzaileak: Urkamendi

Urtarrilak 5, osteguna

Errege magoek herria zehar-
katuko dute **kalejiran**. 19:00



Adunan ere Olentzaro noiz etorriko zain daude haur eta gaztetxoak.

Olentzero ta erregek
dauzkagu buruan
Hotza ere egingo du
aurtengo neguan
ondo pasa zazue
famili giruan
urte berri on denoi
betiko moduan

Egilea: Jon Pagola (DBH 4)

Ikastolarekin herri bat eraikiz

Jai zoriontsuak igaro!



HH eta LH: Lizardi, 5 • Tel. 943 009 275

DBH: Azkorte, z/g • Tel. 943 009 141

20130 Urnieta • <http://www.egape.org>

**Leitzarar bailaratik gertu,
kirol eder honetan aritzeko aukera
paregabea duzu. Zatoz!**

San Esteban z/g 20140 Andoain (Gipuzkoa)
Tel.: 943 300 845 / Faxe: 943 590 453
info@goiburugolfclub.com



GOIBURU GOLF CLUB



**Eguberri eta
Urte berri on!**

**Furgonetak
kamioiak eta kamionetak
Zerbitzu zuzena**

10 milioiko karga bitarteko aseguru

609 434 910 / 609 401 884

Tel.-Faxe: 943 693 212

www.transporteslakunza.com | info@transporteslakunza.com

A Industriegunea - 16. pabilioia, 20159 ASTEASU

52 P.K., 20150 AMASA-VILLABONA

Gabonak Urnietan

Urnietan

Abenduak 21, asteazkena

Ikastolako haurrek **Santo Tomas eguna** ospatuko dute Jakutegi plazan, goizaldean.

Abenduak 22, osteguna

Gabon opariak prestatzeko tailerra
17:00-18:30, Gaztelekua

Abenduak 23, ostirala

Futbolina, **Play Station** eta filma
Egun osoan zehar, Gaztelekua

Abenduak 24, larunbata

Herriko talde ezberdinak **kantari** ibiliko dira kalez kale eta etxez etxe.

Olentzaro Urnietan. Ongi etorria emango zaio eta Gabon Kantak abestuko dira.
San Juan plaza, 12:00

Abenduak 26, astelehena

Ipuin kontalaria 6 eta 8 urte arteko haurrentzat. 11:30, Errekaldeko ludoteka.

Abenduak 27, asteartea

Tailer ezberdinak zortzi eta



11 urte arteko gaztetxoentzat. 11:00-12:30, Gaztelekua

Abenduak 28, asteazkena

Ipuin kontalaria 3 eta 5 urte

11 urte arteko haurrentzat. 11:30, Errekaldeko ludoteka

Abenduak 29, osteguna

Tailer ezberdinak zortzi eta 11 urte arteko gaztetxoentzat.

11:00-12:30, Gaztelekua

Abenduak 30, ostirala

Tailer ezberdinak zortzi eta 11 urte arteko gaztetxoentzat. 11:00-12:30, Gaztelekua

Urtarrilak 2, astelehena

Filma: "Doraemon eta Haizearen Jainkoak"
11:30 eta 16:00, Sarobe

Urtarrilak 3, asteartea

Antzerkia hiru eta 7 urte arteko haurrentzat: "Eugenia ardiaren bidaiak".
11:30, Sarobe

Urtarrilak 4, asteazkena

Gaztelu puzgarriak
3-9 urte arteko haurrentzat.
11:00-13:00/15:30-18:30, Udal Kiroldegia

Urtarrilak 5, osteguna

Errege magoen kalejira Lobera baseritik San Juan plazara.
Bost urte arteko haurrek oparia jasoko dute.



**La Salle Berrozpe
Ikastetxea
ANDOAIN**

Hator, hator mutil etxera
Gaztainak ximelak jatera,
Gabon gaba ospatuzeko
Aitaren ta amaren ondoan.
Ikusiko dek aita parrezka
Ama ere poz ta atseginez...




**Jone
Olasagasti**
andoain

Eguberri eta urte berri on!

■ Oparitarako osagaiak ■ Ezkontzak ■ Jaiotzak

LORADENDA

Kaleberria, 1. Tel.: 943 300 620



eta Andoainen

Andoain

Abenduak 17, larunbata

Haurren eguna.

Eskulanak, merienda.
16:30, Irunberri elkarte

Abenduak 18, igandea

Haur antzerkia

"Xomorroak" ikuskizuna.
Sarrera: 3 euro
12:00, Bastero

Talo tailerra.

16:30, Irunberri elkarte

Abenduak 20, asteartea

Gabonetako kontzertua

Udal musika eskolako ikasleek eskainitako emanaldia
19:00, Bastero

"Orfeon de la Castaña".

20:15, Bastero

Abenduak 20-26

Jaiotzen erakusketa Basteron.

Abenduak 23, ostirala

Biarritz balleta, "Tximeleta" ikuskizuna. 21:30, Bastero

Abenduak 26, astelehena

Mus saioa.

17:00, Gazte lokala



Abenduak 27, asteartea

"Odon, Quijote" antzezlan

Clown Teatre taldearen eskutik. 17:00, Bastero

Bolei partidak Gazte lokaleko kideen eskutik. 10:00

Gabonetako opari tailerra

17:00, Gazte lokala

Abenduak 28, asteazkena

Frontenis, Gazte lokalaren eskutik. 10:00

Ping-pong eta futbolin partidak 17:00, Gazte lokala

Abenduak 29, osteguna

"Agrupación Lírica Itxaso"-ren

kontzertua. 20:15, Bastero.

Gazte lokalaren krosa. 10:00

Altxorraren bila eta orienting, Gazte lokalaren. 11:00

Batukada

17:00, Gazte lokala

Abenduak 30, ostirala

Esku pilota partidak Gazte lokalaren eskutik. 10:00

Gabonetako postre tailerra 17:00, Gazte lokala
"Sax dance", ikuskizuna. 20:15, Bastero

Gabonetako haur parkea

Allurralde kiroldegia
11:00-13:30/16:00-20:00

Abenduak 31, larunbata

Gabonetako haur parkea

Allurralde kiroldegia
11:00-13:30

Urtarrilak 1, igandea

Adarra mendira igoera

Urtarrilak 2, astelehena

Xakea eta damak

17:00, Gazte lokala

Urtarrilak 3, asteartea

Futbol saioa, egun osoz

Urtarrilak 4, asteazkena

Skate eta **patinak** 16:00tan eta Gazte asteko sari bana-keta 18:00tan

Urtarrilak 5, asteazkena

Errege magoen kalejira



Istuitza Garden

- Ezkontzarako apainketak
- Hiletarako loresortak eta koroak
- Lore naturalak eta artifizialak
- Ehizatxakurrentzako janari berezia
- Bazku landareak eta loredun landareak
- Lorontziak • Lurra
- Hilerrirako urte osorako lore artifizialak

Eguberrietako lore apaingarriak, pinu naturalak eta artifizialak

Etixerainoko zerbitzua!

Ordutegia: 9:00-13:30
17:00-20:00
Karrika, 9 - ANDOAIN
Tel.: 943 592 448

CARPINTERIA METALICA



J.
MAIZA
S.L.

ALUMINIOA • ZUBI TERMICOAREN HAUSTURA

Leihoak • Ateak • Begira tokiak (Miradoreak) • Barandak • Bulegoetako manparak

ERAKUSKETA Aita Larramendi, 10-behea • Tel: 630 635 719 • 20140 ANDOAIN
Iparragirre, 13-behea • Tel: 943 321 821 • DONOSTIA

TAILERRA Asteasuko Poligono Industrialia • Tel. 630 635 719 • 20159 ASTEASU

Produktu berria
2006ko urtarrila



SUZUKI LTR 450

AZKAIN Motoak

Eguberri on!

- Motorrerako behar duzun guztia
- Motore azterketak
- Mota guztietako Scooterrak
- Salmenta eta konponketak
- Quad ATU modelo guztiak
- Prezio interesgarriak

etorri eta proba ezazu!



Honda CBR 600RR

Ubilluts auzoa, Pol. 56-Pº12 • 20140 Andoain
Tel.: 943 591 413 / Faxa: 943 590 456

www.azkainmoto.com / azkainmoto@euskalnet.net

Obradoreak, lan gozoari lotuak

EGUBERRI GIROAN SARTUTA, HERRITAR ASKOK TARTEKATZEN DITUZTE OBRADOREEK EGINIKO GOZOGINTZAKO PRODUKTUAK BEREN EROSKETA OTARRERAN

Gabonak gainean ditugu. Gehiegikeriak egiteko unea, jateari eta edateari dagokionez. Aurtengoan ere, mahai baten inguruan ez dira faltako ohiko platerak. Ezta postrea ere. Postreerako gozogintzako produktu ugari; pastelak, tartak edota Errege eguneko opila. Produktu horiek guk lasai aski dastatzeko, ordea, beste batzuk izerdi ugari bota behar dute egun horietan; beti ere, bezeroen eskariak asetzeko aldera. Lan horretaz arduratzen dira obradoreak. Lehengai batzuk hautatu eta nobre sormenez, gaitasunaz eta esperientziak baliatuta, eskuz produktu berriak, gozokiak, egitean datza haien lana. Horretan jarduten dute eguneroko, **Joxe Arrutik** eta **Jose Luis Lopez Gonzalezek**. Arruti obradore lanetan gaztetatik hasi zen. Ikasketak amaitu osteko lehen lanpostuan, laguntzaile bezala aritu zen Donostiako gozotegi batean. Hantxe jarraitu izan du gaurdaino. Azken batean, leku batean hasi, lanbidearen jabe egin eta berak dioen moduan, "momentuz behintzat, bizibide bezala au-



keratu dudana lanbidea da". Orain, Andoainen bertan gozotegi bat abian jartzeko gogorari da lanean. Lopez Gonzalezek, aldiz, 31 urte daramatza lanbide horretan. Andoingo Izuru gozotegian dihardu obradore lanetan. Gozogintzako produktuak dastatzetik gozokiak ekoiztera igaro omen zen. "Lanbide honetan gozozalea nintzelako hasi nintzen" oroitu du Jose Luisek.

Baina bezerorik gabe lanik ez. Goizean goiz lanean hasten diren unetik bezeroen eskariak zehazten dute Joxe eta Jose Luisen lan erritmoa. "Lanera iritsi eta ez dakizu zenbat lan izango duzun; ezin da aurreikusiri zer egin behar duzun" zehaztu du Jose Luisek. Hala eta guztiz ere, gustuko aldapan

koskarik ez omen da izaten, lanbide gozoa baita obradore lana, bere gazi puntuak dituen arren. Gozoa, gustuko lana izateaz gain, bezeroen esker oneko lana baita eta lasaitasunez jardun baitaiteke egun batzuetan. Gazia, erritmo biziko lan egunak ere izaten baitituzte eta jai egunik ez, gehienek lanik egin behar ez duten egunetan. Lopez Gonzalezek dioen bezala, "zenbat eta jai egun gehiago izan jendeak, orduan eta lan gehiago izaten dugu obradorek". Bizimodu aldrebesa dute, horrenbestez, lan ordutegia dela eta. Izuruko langilearen esanetan, "denbora librea badut, baina ez gainerakoek dutenean. Afariren bat izanez gero, mugatua dut horretarako denbora, hurrengo

goizean goiz jaiki behar izaten baitut".

ESKULANAREN BALIOA

Merkatari txikiak izaki, ezin dute kate handiekin lehiatu, prezioei dagokienean. Askotan dirudi merkataritxien prezioak, kate handien eskaintzen prezioak baino garestiagoak izan ohi direla. Arrutik argitu duenez, ordea, "askotan guk garestitzaletan jotzen duguna, merkaturako prezioekin alderatuta, askotan merkea izaten da". Hain zuzen, kontuan hartzeak baitira, eskuz egindako lana dela, produktuen pisua, promozioak... Edozein kasutan, egun ezin dute saihestu kate handien eskaintzekiko duten menpekotasuna.

Menpekotasun horren zergati nagusia, merkataritxikiak egindako produktuak bezeroengana iritsarazteko duten zailtasunean aurki daiteke. Alde horretatik, Arrutik marketing akats bati eagozten dio hori horrela izatea. "Guk geure burua ez dugu eta ez dakigu saltzen. Ez dugu horretan ez denborarik ezta dirurik gastatzen, kate handiek ez bezala".

Edozein kasutan, denda txikitian lan egiten duten obradorek kate handiei aurre egiteko bi arma dituzte: eskulanean oinarrituta, eskaintako zerbitzuaren kalitatea eta bezeroekiko harreman zuzena eta gertukoa. "Prezio berean, guk emandako kalitatea eta zerbitzua ezin dituzte eskainta kate handiek" baieztatu du Arrutik.

Aurrera begira, sektorearen etorkizuna kolokan ikusten dute elkarriketatut ditugun obradorek. "Sektorea berregituratzen ez bada, desager daiteke" adierazi du Lopez Gonzalezek. Horren haritik, Arrutik argi du eremu txikian lan egiten duten obradoreak errealistak izan behar direla: "Merkataritxikiak garbi izan behar dute ambizio handiegirik ezin dutela izan".

EGUBERRIEN ATARIAN

Obratu behar askoko lan egunak datozkie bie; Eguberriak hain zuzen. Pastelak, tartak, eta batez ere, Errege eguneko opila. Lopez Gonzalezek gisa honetan deskribatu dizkigu egun horiek: "Lan ordu asko izaten dugu, senitartekoen laguntza izaten dugu eta ezin iritsi ibiltzen gara". Lan asko, baina, aldi berean, lan polita Arrutiren hitzetan. "Lanik po-

litenak orain izaten ditugu, Gabonetan, zure irudimena lantzeko aukera handia izaten baita eta produktu horiek urtean behin egiten baitira" azaldu du larrauldarrak. Lan polita eta gozoa, baina lotua eta gogorra aldi berean.

LANA DEZENTE UGARITU

Amasa-Villabonako Ogi-Goxo okindegian nahiz Andoingo Iñaxi gozotegian, garai honetan lana dezente ugaritzen dela azaldu dute. Ogi-Goxoko **Mari Karmen Iztuetak** bere iritzia azaldu du; "negu bete-betean, Eguberri garaiko postre gozoak udan baino gehiago eskatzen ditu gorputzak. Guk turroiak eta Errege eguneko opilak saltzen ditugu gehien. Ogia ere, urtean zehar baino gehiago kontsumitzen da, garai honetan, askotan gonbidatuak izaten baitira etxean". Iñaxi gozotegiko **Txema Galparsorok**, gozogileentzat Gabonak data garrantzitsua direla aipatu du, "salmentei begira urteko sasoirik garrantzitsuenak da, zalantzarik gabe. Mazapanak, polborioak, turroiak... garai honetako jakiak dira eta urte-



an zehar egiten ez direnez, lana gehitu egiten da nabarmen".

KOMERTZIO HANDIEK SALTEGI TXIKIAK JAN

Eguberri garaian salmentek gora egiten badute ere, saltegi txikiak ez dute batere bide erraza. Mari Karmen nahiz

Txema bat datoz kompetentzia handia dagoela esaterakoan. "Salmentek gora egiten dute zertxobait Gabonetan. Hala ere, gero eta gutxiago nabaritzen da igoera hori. Komertzio handiak irabazi egiten du eta min handia egiten dio txikiari. Ezin dugu konpetitu, ez daukagu zeregirik, nabarmena da

hori". Hainbat gozogile euren gozoak maila industrialean saltzen hasteak ere, denda txikiak kalteak ekarri dizkiola azaldu du Iñaxi gozogileak, "gero eta txikiagoak sentitzen gara. Kalitate mailan erraza daukagu kompetentzia, baina salneurriari begiratzen badiogu oso zaila".

"Lo gutxi, jan gutxi... denetik gutxi egiten dugu Errege egunean. Lana bai, asko"

ERREGE OPILAK ETA BESTE

Ogi-Goxoko Mari Karmenen hitzetan, data hauetan Errege eguna da anabasarik handiena sortzen den eguna, "gaueko 22:00ak aldera hasten gara opilak egiten eta hurrengo goizeko 10:30etarako opil guztiek laboratuta egon behar izaten dute. Lo gutxi, jan gutxi... denetik gutxi egiten dugu egun horretan. Lana bai, asko. Egun horietan egiten den kontsumo neurrigabea astakeria iruditzen zait, baina saltzaila naizen aldetik, ez dut oso altu esango". Txemak ez du egun bat bestearengatik desberdindu, "denetik egiten dugu, denetik egin behar delako. Agian Errege eguna da neketsuena, baina egun bakoitzak du berea".



X. ETXARRI

Egutegi pertsonalizatuak

Gabonetako opari aproposak, baina urte guztirako balio dutenak!

HERNANI • Juan de Urbieta etorbidea, 8 Tel.: 943 336 116
ANDOAIN • Elizondo plaza, 2 (atzealdea) Tel.: 943 594 148





Gabon zorientsuak igaro!

preziorik hoberena urrutira joan gabe


Giauto

GIPLUZKOA AUTOAK, S.L.

Benta aldea industrialdea, z/g
Tel.: 943 650 049
ANOETA-TOLOSA



Arropa Bitxikeriak Irango alfonfrak

EGUBERRI ON!

Kale Nagusia, 6
Tel.: 943 591 224
ANDOAIN



6 Gogoratzeke zerbait utzi nahi nuke finalean 9*

AITOR MENDILUZE ANDOAINDARRA DA BERTSOLARI TXAPELKETAKO FINAL HANDIAN ENTZUN AHAL IZANGO DUGUN ESQUALDEKO BERTSOLARI BAKARRA. LEHIA HANDI HONEN ATARIAN, BERTSOZALE ELKARTEKO BERE BULEGOKO ATEAK IREKI DIZKIO AIURRIRI.

Bigarren aldiz finalean, pozik?

Bai pozik edo, pentsa daiteke helburuetako bat behintzat beteta daukagula, eta gustura.

Finalurreko bietan lasai eta erraz ikusi zintugun, zuk ze sentazio izan zenituen?

Taulagainean oso lasai egon nintzen, agian lasaiegi ere bai zenbait momentutan. Tentsio falta pixka bat ere nabaritu nuen, baina orokorrean ondo sentitu nintzen. Beharbada, batzuetan, errima eta beste arlo batzuk gehixeago estutu beharra ikusi nuen, baina eginda-koak horrela beharko du.

Zein da hain lasai egotearen sekretua?

Ez dakit, alde batetik, akaso aurretik lan gehiegi ez egin izana, eta behar bezala prestatu ez izana izango da. Behin honaino iritsita, egin eta kitto. Bestetik, txapelketan helburu jakinik ez izatea postuari dagokionez, gehiago bertsotan disfrutatzeke gogoia eta zerbait uzteke gogoia izatea. Postuak hainbeste inporta ez duenean, errazago aritzen dela iruditzen zait.

Hala ere, txapelketa honetan ikusi duguna baino gehiago eman dezakezu. Hau da, ez duzula goia

jo bi saioetan, ezta?

Ez, egia da hori, eta ez dakit txapelketa honetan goia jotzera iritsiko naizen ere. Sentitu dut gehiago ere egin nezakeela, horregatik aipatzen nuen tentsio faltarena. Batzuetan, beharbada estutu banintz hobeto ere egin nezakeen, baina ez da nahita estutzen, hori irten egiten da.

Askotan entzun dizugu, postu eta puntuen bila baino, zerbait berria eskaintzera zoazela, zer da eskaini nahi duzun hori?

Ez dakit berria den. Agian berria ez da nigan, baina egia da bertsokera bat erakustera noala. Uste dut gutxi edo gehiago nire bertsokera edo kantatzeko modua definitu dudala eta hori erakutsi nahi nuke. Postuarekin egoskortzen denak zer komeniko litzaiokeen pentsatzera jotzen du, eta normalean hanka sartzen du. Nik gogoia daukat bertsotan nik egin ohi dudana bezala egiteko, finalerdietan egin dudana moduan, ahal bada hobetuz. Baina nire estiloaren barruan beti, ahal den onena eman nahi nuke. Iruditzen zait jada plazak eginda, jendeak badakiela zer bertsokera dudana eta postu bat edo beste egiteagatik ez dut kantatzeko era aldatuko.



Bertsozale elkartean lan eginda, txapelketako antolakuntza lanean ere ari zara. Esan al daiteke aurtengo txapelketan jarritako helburuak betetzen ari direla?

Bai, erabat gainera. Kanpora begira erantzun izugarria edukitzen ari da, gure aurreikuspen onenetatik gora. Bertso maila ere izugarria izan da, pentsatzen genuen bezala. Orokorrean, txapelketa borobila izaten ari da, beti kexatzen direnak egongo dira baina arrakasta ukalezina da. Finalerako sarrera denak salduta daude.

Antolatzaile eta bertsolari izanda, saio gehienetan izango zinen...

Harritu zaituen bertsolariren bat?

Amaia Agirre.

Hunkitu zaituen bertsoaldiren bat?

Oso zaila da bertsolari bat hunkitzea bertsoaldi batekin, sarri nondik joango den bai baitakigu.

Barrea eragin dizun bertsoaren bat?

Irribarre txiki asko izan da.

Nire burua ez dut faboritotzat inoiz jo eta benetan uste dut ez naizela faborito

Igandekora itzuliz, asko entzuten zen jende berria indartsu zetorela, baina ia orain lau urteko berberak zaudete finalean.

Bai. Azkenean plazan dabilen jendeak, txapelketan aritu denak, esperientzia dauka. Bertsoa ez da testua bakarrik, esperientziak asko balio du, eta horrek guztiak emaitzan eragiten du.

Aitor Mendiluzek zer eskaini nahi luke igandean?

Zerbait utzi nahi nuke jendearen buruan. Postuak erlatiboak dira, nik nahiago nuke lau potu egin eta zortzigarren gelditu baina jendea nik egindako zerbaitekin geratzea, hirugarren egin eta egin dudana inor ez gogoratzea baino. Jendearen gogoan geldituko den zerbait eskaini nahi nuke. Hori eginez gero gustura geratuko nintzateke.

Txapelerako faboritoetako bat zarela diote...

Ez dut uste. Ez zait iruditzen. Ez dakit faborito garbirik baden ere. Suposatzen dut aurreko buruz buruko bi lagunak izango direla faborito, gainera inkognita dira oraindik, ez dutelako txapelketan kantatu. Baina nik nire burua ez dut faboritotzat inoiz jo eta benetan uste dut ez naizela faborito.

Zorterik onena Aitor Eskerrik asko.



Txapelketa Nagusiko finalera, Aiurriren eskutik

Bi autobus irtengo dira igandean BEC-era bidean. Batak Andoain-Urnieta-BEC ibilbidea egingo du eta besteak Aduna-Asteasu-Villabona-BEC. Beraz, eskualdeko ordezkariak zabala izango da Bertsolari Txapelketako Finalean.

Ordutegia

Andoainen 08:15tan Merkatu plazatik irtengo da autobusa eta Urnietan 08:50etan izango da Idiazabal kaleko geltokian (Matxoren aurrean). Garaiz iristea komeni da, milaka izango baitira bertan bilduko direnak.

Irabazleak zozketan

Finalera dohainik joateko bina sarrera eskuratu zituzten Andoingo Amaia Etxeberriak eta Villabonako Mari Karmen Agotek. Irudian, Amaia Etxeberria finalerako sarrerak eskuan dittuela. Zorionak bie!

Urkain-Berri afera

Urkain Berri industrigunea

Jdaletxean eginiko azken udal batzarrean EAJK Urkain Berrin industrigunea sortzeko proposamena aurrera atera zuen, alkatearen kalitatezko botoaz baliaturik. Arau Subsidiarioen aurrerapen fasean, alkatetzak gutxiengo politikoarekin aski zuen. Aldiz, aurrera begira, oposizioan dagoen alderdi politiko baten babesa beharko du.

Testuinguru honetan ez da girorik Urnietako udaletxean, azaroaren hogeita zortziko udalbatzak hautsak harrotu baititu herrian. Urkain Berri gaiarekin hasi eta bestelako aferak azaldu dira joko politikoan.

Iritzi publikora eskaintako idatzian Arau Subsidiarioen batzordeak, Arnasak eta Berrasotako bizilagun elkarteak kritika zorrotza egiten diote alkatetzari. Urkain Berrin industrigunea eraikitzeke lehen onarpena "inposaketei atea zabaltzea" eragin duela adierazi dute. Besteak beste, hiru gai



hauen inguruan herri kontsulta egitea proposatu dute: Urkain-Berri, autobidea eta arau subsidiarioak. Dimisioa ere eskatu diote alkatetzan dagoen taldeari. Gutunaren amaieran zera adierazten da, "gure bizitza kalitatea jokoan dago eta gure iritzia emateko eskubidea dugu eta aintzat hartuak izateko ere bai".

Urkain Berrin gaian EAJK oposizioaren jarrera kritikatu zuen. Zentzu honetan, Tomasena EBko zinegotziak zera adierazi du, "Udaletxe honetan gauzak nola egiten diren aztertu behar da. Gure planteamen-

Urkain Berri industrigune bilakatzeko lehen onarpena lortu da, gutxiengo politikoarekin

duaren abiapuntua autobidearen ibilbidean dago. Aurreikusita dagoen ibilbidea aldatzea aldarrikatu dugu, beraz, Urkain Berri egitasmoak zentzurik ez duela uste dugu". Herri-urrunago igaroko den proposamen alternatiboa badutela adierazi du Tomasena.

Kritiken aurrean argi hitz egin nahi du Tomasena, "gauza bat da herriaren onura desio izatea eta beste gauza bat da zein kosturen arabera egiten den hori. Erraustegia ipintzea ekonomikoki onuragarria izan liteke ere, baina zer nolako kostua ekarriko luke horrek herritarren eguneroko bizitzan? Arrazoi ekonomiken gainetik lehenetsi behar dira". Alkatetzaren proposamenari ezezkoa esaten jarraituko dela adierazi zion Aiurri.

SAHARA ALDEAN IZAN DA URNIETAKO ETA ANDOINGO ORDEZKARITZA



Abenduaren 2an hegazkina hartu eta Sahara aldera abiatu zen eskualdeko talde bat. Bidaia luzearen ondoren iritsi ziren errefuxiatuen kanpamenduetara. Haietako asko, hilabete luzetan egon dira bidai honen zain, eta azkenik, udako hilabeteetan zehar etxean edukitako haurrak ikusteko aukera izan zuten. Batzuek lehen aldía zuten Saharako kanpamenduetan, beste batzuek ordea, badute aurreko urteetako esperientzia. Astebetean, emozio handiak bizitzeko aukera izan zuten guztiek.

Anselmoren oilarra



MAIDER ZIAURRIZ • URNIETA

Joan zen herritik Anselmo, eta harekin edo, oilarra. Haize orratza ez; haize orratza hor dago oraindik, ekialdera orain, mendebaldera gero... haize orratz guztiak ibiltzen diren bezala.

Eta ez dakit zergatik gogoratu naizen gaur horrekin, baina propio begiratu dut Anselmoren etxeko teitlatura, haize orratza han ote zegoen. Eta hantxe zegoen, bai, baina oilarra falta. Eta pena eman dit. Zer egingo zaio! Txorakeria izango da halako gauza sinpleek pena ematea, baina oilar hori sinboloa ere bada plazan bizi garenontzat. Gure etxean, behintzat, bai.

Badakit etxeko sua etxeko hautsez estali behar dela, eta barkatuko ahal didate etxeok famili kon-

tuak hemen haizatzea, baina nik uste dut Anselmoren haize orratza herriaren ondare ere badela eta horregatik hemen kontatzekoa dela gure etxeko kontu hori.

Ba, gauza da amak askotan esan izan diola aitari Anselmoren haize orratza baino aldakorragoa dela. Eta zer nahi duzue esatea,

niri grazia egiten dit konparazioak. Erdaraz esaten dio (*pareces la veleta de Anselmo*), baina berdin-berdin balio du euskaraz. Hala ere, aspaldian ez diot halakorik entzun. Hori ere egia da. Beharbada Anselmo joan zelako herritik, eta haize orratza oilarrak gabe ez delako hain haize orratza ere. Baina niri, hala ere, herrian zabaltzeko moduko esaera iruditzen zait. Jokoa ere ematen du, gainera, herri esaera bat baino gehiago sor baitaiteke hari horretatik tiraka: *Anselmoren oilarra eman, Anselmoren oilarrak kukurrukua jo, kalparra Anselmoren oilarrak baino harrogo izan...*

Anselmoren oilarrak maiz salatu du haizeak nondik jotzen zuten, eta nik uste hobeto ibiliko ginatkeela beste oilar baten kuku-

ruruari kasu egin beharrean hari gehiago begiratu izan bagenio. Orain, ordea, ez Anselmorik eta ez oilarririk; haize orratz hotza bakarrik. Eta esaera ere, galtzeko arriskuan. Horregatik, pentsatu dut Anselmoren oilarraren aldeko kanpaina egin genezakeela herrian. Boluntariorik bai?

POSTONTZIA: aiurri@topagunea.com

Astekariaren alde Urnietan!!

- Orain, egin zaitez borondatezko harpidedun eta eman zure laguntza!
- Bete txartela edo deitu 943 331 455 edo 943 300 732 zenbakietara
- Urnietar aurrera jarraitzeko zure laguntza behar dugu!!
- Aiurri astekaria Andoainen eta Urnietan: Nortasun hitzak

Izen Abizenak

.....

Helbidea

Telefono zenbakia

Jaiotze urtea

Kontu Korronte zenbakia (aukeran, bestela telefonoz)

.....

Profesional hoberenak zure zerbitzura:

SANPE
leihok

Leihok, ateak, aluminioa, PVC, mistoa
Pertsianak • Balkoiak • Aluminiozko armairuak
Dutxa-ibxitura • Ardatz aldagarriko leiho kulunkariak
Itxierak • Etab

Tel.: 679 059206 • 619 808034 • Fax: 943 650752
Elbarrena auzoa • Industrialdea 15 • 10 baxua, 19
20150 Zizurkil • Gipuzkoa



JON UNANUE • ANDOAIN

Martin Boormann

Berrogeita hamargarren Aiurri astekaria irakurtzen ari zara; zenbaki borobila, betetzen duenari buruz hitz egiteko aitzakia eskaintzen duena, baina, aurrekoetan Aiurri astekariari buruz askotxo hitz egin dudanez, besterik gabe joaten utziko dugu, gure buruari galdetuz astekari honek askoz zenbaki gehiago beteko al dituen, edota, begi bistatik desagertu egingo zaigun urte berriarekin, ezen, egia esatekotan, lerro hauek idazten ditudan uanean bertan 75 dira Aiurri astekariaren harpidedun laguntzaile egin diren familiak Urnietan, eta, Gabonetako giroak gehixeagori gogoa berotzen ez badio behintzat, ez dirudi urtea bukatu bitartean kopuru hori izugarri igoko denik. Eta 200 harpidedun baino ez genuen eskatzen aurrera jarraitzeko!, Amasa-Villabona batean –Urnietaren pareko biztanle kopuruarekin, esate baterako- Beterri-Aiztondoko Aiurri aldizkariak –Urnietan ezagutzen ez duzuen- 500 harpidedun dituelarik! Zer gertatzen da, bada, Urnietan? Misterioa.

Zenbaki borobilez, desagertzeaz, misterioetaz eta gauza tristeetaz hitz egiten hasi naizenez, barka iezadazue hor zehar jarraitu eta Martin Boormannen gainean hitz batzuk egiten baldin badituz. Agian, gehientsuenei izenak, horrela botata, ez dizue ezertxo ere esango, eta agian zeozer argixeago ikusiko duzue kontua Martin Boormannen izena Adolf Hitlerrenarekin lotzen baldin badugu. Aurten bete dira 60 urte II Mundu Gerra amaitu zenetik eta nahikoa ekitaldi izan da urtean zehar hura oroimenean suspertzeko. Zenbaki borobila hori ere, eta oso tristea gaia; desagertu, triskantza hartan baina lagun gehiago zail, baina eraildako 20 milioi lagun haien artean gizaseme batenak itzal luzeko misterioa sortu du urte hauetan guztietan. Ez da bakarria izan, gisa bereko ehundaka misterio batzuk utzi zituen gerra hark, baina Mengele hitzailearekin batera Simon Wiesenthal nazi-ehiztari austriarrarentzat obsesio bihurtu omen zenetako bat dugu bera, Martin Boormann alegia.

Martin Boormann alderdi nazional-sozialistako idazkari nagusi izatera iritsi zen, Rudolf Hessek bere burua mo-

du zelebre hartan britaniarren esku jarri ondoren, 1941. urtean. Horren ondorioz, Adolf Hitler Alemaniako kantzelerariaren gobernu egituran ere idazkari kargua hartu zuen, eta gerra amaitu bitartean Hitlerren itzala izan zen, kantzelerariari itzalik inoiz egin ez zion arren, haren izaerarekin, aiurriarekin, hori ezinezkoa zelako. Baina garai hura ongi ikertu duten aditu gehienak bat datoz baieztatzeko orduan bostere izugarria izan zuela bere esku, Hitlerrek erabaki beharreko guztiak haren eskuetatik pasa eta haren bedein-kazioa behar zutela, nolabait esateko. Martin Boormannek izan zuen azkenari buruz oraingoz nahikoa sinesgarritasunez inork kontu

garbirik eman ezin izan duenez, bere mitoa hazten joan da, direnak eta ez direnak kontatu izan dira hari buruz eta hark zituen grinei buruz, baina zertzelada seguru samarren bat eman beharko bagenu, esango genuke asko egin eta agindutako gizona izan zela, baina beti, beti, itzaletik, inoiz ez zuen aurpegiarik ematen, erabaki guztiak besteen bizkarrera egotzita.

Diogun bezala gerra hartan asko eta asko egindakoa, ez da ahuntzaren gauerdiko eztula, eta Nurembergeko epailetan horren berri izanik bertara eramanez ezin izan zuten arren urkamendira kondenatu zuten. Baina horri ere ihes egin zion. Hitlerrekin ia azken ordura arte egon zen Berlingo kantzeleritzako bunkerrean, baina guztia galduta ikusi zuenean, Hitlerrek bere buruaz beste egin baino egun gutxi lehenago, bunkeretik desagertu egin zen, hitz erdirik esan gabe. Berlingo metroaren bide eta tuneletan barrena ihes egitea erabaki bide zuen eta, batzuen arabera, lortu ere lortu omen zuen. Beste ikerlari batzuek hiltzat eman izan dute metro-geltoki jakin bati sobietarrek egindako erasoan. Baina gorpurik ez zen inoiz azaldu, eta hortxe sortu zen misterioa eta mitoa. Eta 60. urteurren honetan ere ez da argi berririk egiterik izan horren gainean.

Itzalean nahi hainbat agindu eta egin, eta bizirik atera? Lortu ote zuen Boormannek, benetan?

Eta ez al dira haserretuko Aiurrikoak Martin Boormann honen kontuekin nahasi ditudalako!

Martin Boormann esango genuke asko egin eta agindutako gizona izan zela, baina beti, beti, itzaletik, inoiz ez zuen aurpegiarik ematen

Berlingo metroaren bide eta tuneletan barrena ihes egitea erabaki bide zuen eta, batzuen arabera, lortu ere lortu omen zuen.



HIAZINTO FERNANDORENA • URNIETA

Gabonetako Loteria

A benduko hilabetea baino ondortxo aurregotik ere nonahi, dena edo taberna, agerian dugu “Gabonetako loteria badago” delako iragarpena. Mauka ederra, nik neuk pentsatzen dut, han-hemenka zerutik behera jausteko modua egiten duen Estatu espainolak, diru-multzo bakar batzuen trukean, jendearengandik sosak biltzeko daukan, besteak beste, bide hau ere! Gabonetan bereziki baina era batera edo bestera urte guztian zehar, esan beharrik.

Hala ere nik beste mota batzuk aipatu nahi ditut hemen, aberatsagoak direnak, sakonagoak, eta diruak ez bezala bihotza edo barnea laxatzen dutenak direlako aipatu ere.

Mundua xahutzen ari garen zentzuzioa daukat. Gutxitik asko izatera pasatu gara: ogia nahi ezik, zer jan eta jantzi ez dakigu... iduri du kontsumoa dugula bizitzeko helburu nagusia. Aire bera (ozono-geruza) kakazten... Lurrik hoberenak jaten... Hori da hori dena jan beharra daukaguna! Ezta mundu osoaren jabe bagina ere..! Bestalde, bai ote dugu zentzu apur bat, ohartzin ote gara minimum bat gu bizi edo bizitzea egokitu zaigun mundu honen erdia baino gehiago goseak hiltzen, gaixotasun guztiak (malaria, ihesa...) Jainkoaren madarikazio baliran beren gain eta ospitale edo sendagailurik gabe, eskolarik ezean ezjakin, etab. gertatzen dela?

Eskerrak tartean Medicus Mundi, Unicef, Caritas eta gisa honetako erakundeak eta emakumezko nahiz gizonen lankide (kooperante) eta misiolarien ahaleginari eta hein apal batean jende zintzo multzo baten diru-emaitzari, zeren hauek gure bihotzeko alda-ba jo eta zer nolabait buruz nahiz bihotzez jantzeko bidea egiten ari baitzaizkigu. Hauxe da aipatu nahi nuen Gabonetako bigarren loteria mota. Eta hau, besteak baino inbertsio emankorragoa dakarren loteria delakoan hain zuzen.

Eta orain hirugarren loteria aipatuko dut: Gure presoak. Bai gureak! Ez diet gorespen handirik luzatu nahi, beste naz badakit-eta “apologia”, “entorno” eta horrelako hitz hanpatuen aitzakian Madrilerako bidean aise jartzen dutela bat. Baina gureak dira, zer arraio! Eta maite ditut. Ez geroz gutxiago, gainera. Izan ere bigarren loteria horretakoek munduarekiko ikuspegia aberasten lagundu didaten bezala, hirugarrengo hauek Euskal Herriarekiko ikuspegia zorroztera eta aberastera eramanez nau-telako maite ditut bereziki.

Gureak ote diren? Ez dut zalantza izpirik. Bakoitzak bereak (etxeakoak, odolekoak) maite dituela ere ez dago inolako duda-mudarik. Horretan bai ez dagoela! Ikus bestela ostiral iluntzetan negu eta uda Donostiako kaleetan zehar (berdin. Iruñea, Bilbo... eta herri nahiz auzo ezberdinetan) burutzen den prozesioa kanpotik bederen. Kanpotik? Donostiakoaz ari naiz. Kale ertz batean begira jartzea aski duzu, eta are hobe, halako edo beste halako preso baten kartela hartu, estandarte modura, eta sar zaitez ezkerreko zein eskuineko lerroan. Eta hango bakoitzak bere baitan daraman prozesioaz jabetzeko ere ez duzu luzaro hizketan jardun beharrik. Berehala ohartuko zara: 300 pertsonaz goiti, prozesioa partaide guztiak kontatzen hasten bazara, eta denetarik: gazte, heldu eta adineko. Galde egiezu hanka-hankari eman ezinik ibilaldia egiten duten aitona edo amona haietakoren bati ea maite duten preso daukaten semea edo erraina edo biloba edo... Eta barneko prozesioa edo prozesioa barnetik zein den orduan ikusiko duzu benetan.

Noiz amaitu behar ote du gure herriaren kalbario honek galdegiten diot neure buruari kaleetan zehar isiltasuna gordez ibili ohi garen prozesio horretan aurrera joan ahala. Ez pentsa txantxetako denik gero! Izutzeko moduko zifrak dira zehatz-mehatz ikusten hasiz gero. Hara, bizpahiru datu aipatuko ditut soilik.

Duela 37 urte gutxi asko izan zuen hasiera arazo honek Badakizue zenbat abertzale atxilotuak izan diren E. Herriaren harrez gero? Hor nonbait 35.500 kalkulatu dira eta 3.000 exiliatu. Gaur egun 700 euskal politikiko preso baino gehiago dauzkagu Frantzia, Espainia eta herrialde ezberdinetan sakabanaturik, hauetarik asko eta asko E. Herriatik 500-700-1.000 Km.-ko distantzietara dauden kartzeletan.

Bestetik, badakizu asteburu bakoitzean 1.500-2.000 lagun direla, familiako eta adiskide, autobus eta autoetan errepide desberdinetan barna 40 minutuko bisita egiteko joan-etorria egin ohi dutenak? Nire adiskide batek egin kalkuluen arabera, presoen bisitak egiteko, oro har 530.000 Km. burutu behar dira asteburu bakoitzean, hots, entzun ongi! munduaren bira 11 aldiz egingo balitz bezala. Ohar, amaitzeko, guzti horietan gastatzen diren orduak eta dirutzak halaber. Diruaren aldetik, urteko 21 milioi euro daude kalkulaturik. Berriketa ederra, hala fede! Noiz arte? Horixe da atergabean nik neuk galdegiten dudana.

Oharra: Biltzar argitaratzaileek ez dute beregain hartzen aldizkarian adierazitako esanien eta iritzien gaineko erantzukizunik.

Aiurri
BETERRI-BURUNTZAKO ASTEKARIA

Manuel Larramendi
Kultur Nazarioa

INISTORRA

Ekoizlea: **ERROITZ**
KULTUR MUGATUA

Laguntzaileak:

Gipuzkoako Foru Aldundia

Aldizkari honek bi udalerrri hauen dirulaguntza jasotzen du:

ANDOAINGO UDALA

URNIETAKO UDALA

Argitaratzailea:

Manuel Larramendi Kultur Bazkunaren Andoaingo Udalerri Biltzarra eta Urnietako Iñistorra Euskaltzaleen Biltzarra.

Egoitza Orokorra:

Dr. Huizi kalea 15, 1-esk. 20140, Andoain
Tel.: 943 300 732
Faxa: 943 300 731
@: aiurri@topagunea.com
Webgunea: www.aiurri.com

Urnietako egoitza:

San Juan Plaza, 9
20130, Urnieta
Tel.: 943 331 455
@: urnieta@topagunea.com
Webgunea: www.aiurri.com

Zuzendaria:

Jon Ander Ubeda.

Erredakzioa:

Ainhoa Gil, Jon Ander Ubeda, Jon Unanue eta Aitziber Salinas.

Diseinua:

Maddi Trutxuelo eta Jon Ander Ubeda.

Publizitate Arduraduna:

Fernanda Irazu.

Argazkilariak:

Xabier Ubeda.

Tirada:

4.000 ale.
Inprimategia: SVP S.L.
Lege Gordailua: SS-1078/04
ISSN: 1698-4870

Kudeatzailea:

Aitziber Arreseigor.

Banaketa arduraduna:

Xabier Ubeda.

Banatzaleak:

Andoain: Laida Jauregi, Elixabet Isasi.
Urnietako: Ander Balda, Beñat Erkizia.

Agenda

ABENDUAREN 16TIK AURRERA • AGENDAN IRAGARTZEKO: 943 300 732 / aiurri@topagunea.com

Mendizaletasuna

Andoain

- Azkoitia- Kakueta (924)- Aittola Abenduak 18, igandea

Lehiaketa

Andoain

- XIII. Jaiotza lehiaketa. Lanak aurkezteko eguna: Abenduak 20, asteartea.
- 11:00etatik 13:00etara Basteron

Musika

Andoain

- Benito Lertxundiren** kontzertua. Disko berriaren aurkezpena egingo du oriotarrak. **Sarrerak agortuta daudela** jakinarazi dute antolatzaileek. Abenduak 16, ostirala 21:30, Bastero
- Ganbara** tabernan ostiralero zuzeneko emanaldiak, abenduan. Abenduak 16, ostirala



Santo Tomas

Urnietako

- Ikastolako haurrek Santo Tomas eguna ospatuko dute Jakutegi plazan. Abenduak 21 asteazkena

Etxebizitza

Andoain

- Zabalgunean, babes ofizialeko 20 etxebizitzaren zozketa. Izena emateko azken eguna: Abenduak 19, astelehena

Bazkaria

Urnietako

- Jubilatuak elkarteko kideek urteroko bazkaria, elkartean bertan. Abenduak 17, ostirala

Erakusketak

Andoain

- Olagaino** emakume jubilatuek egin dako eskulanean erakusketa. Igandera arte, Ambrosia Olabiden

Ikastaroa

Beterrri-Buruntza

- Glotodidaktika** ikastaroa AEK-ren eskutik, Donostian. 943 327 172

Inauteriak

Andoain

- Proposamenak aurkezteko epea** abenduaren 22an amaitzen da. 943 303 540

Urnietako argazki zaharren egutegia salgai



Ohar honen bidez Urnietako Iñistorra Euskaltzaleen Biltzarra aditzera ematen du, Urnietako argazki zaharrekin argitara eman duen 2006 urteko egutegia salgai dagoela Urnietako honako sal-tokietan: **Aiurri** aldizkariaren egoitzan (San Juan plazako 9. zenbakian), **Lekaio** Kultur Etxean, **Urnietako** okindegian (plaza), **Labetxo** okindegian, **Adarra** okindegian, **Idiazabal** liburutegian, **Gaztelu** gozotegian.

Egutegiaren prezioa 4 eurokoa da, eta bilduko den dirua Aiurri aldizkariarentzat izango da. Bestalde adierazi dute, Aiurri aldizkari harpidedun laguntzaile egin direnek aipatu egutegia doan jasoko dutela beste opari batekin (*Beterrriko kantak* CD-ROM-a edo Martin Ugalderen *Hiltzaileak* narrazioen CD-a). Harpidedun laguntzaile egin nahi dutenak Iñistorra eta Aiurriren egoitzara jo behar dute astelehenetik larunbatera goizetan, San Juan plazako 9-behean, 9:30etatik 13:30etara.

AMASA-VILLABONA

Lumane aldizkariak iragan mendeko argazkiekin ere osatu du 2006 urteko egutegia. Beterrri-Buruntza eskualdean interesa duen edonork telefono zenbaki honetara deitu beharko du, goizez nahiz arratsalde: 943 300 732. Egutegiaren salneurria: 5 euro.

DEIALDIAK DEIALDIAK DEIALDIAK DEIALDIAK DEIALDIAK

PSIKOLOGOAK

- Lan deialdia:** Nafarroako Gobernua. Osasunbidea
- Ezaugarriak:** Psikologiako lizentziatu titulua edo baliokidea.
- Edukia:** Psikologo Klinikoen lanpostuak betetzeko oposizio-lehiaketarako deialdia.
- Epea:** 2006-01-02
- Telefonoa:** 948 428 800

DIETETIKA

- Lan deialdia:** Nafarroako Gobernua. Osasunbidea
- Ezaugarriak:** Dietetikako Goi Mailako Teknikari titulua edo baliokidea.
- Edukia:** Dietetikako Teknikari Espezialisten lanpostua.
- Epea:** 2006-01-04
- Telefonoa:** 948 428 800

ITZULPEN SARIA

- Deitzailea:** AED Elkartea
- Saria:** 3.000,00 euro.
- Edukia:** Sari honen helburua da 2005eko Novel Literatura Sariaren, Harold Pinter-en, *The Lover* eleberria itzultzea.
- Telefonoa:** 943 310 267
- Epea:** 2006-12-31
- @:** kultura@aedelkartea.com

IKERKETA LAGUNTZAK

- Ezaugarriak:** Kontserbazio-biologiarako ikerketa laguntzak.
- Baldintzak:** Doktore titulua izatea.
- Iraupena:** Hiru urte
- Epea:** 2005-01-31
- Telefonoa:** 902 224 466
- @:** convocatorias@fbbva.es
- Iturria:** BBVA Fundazioa



12 tribu

SARBE

Abenduak 17,
larunbata
22:30etan
Sarrera: 5 euro
Sarobe aretoan
URNIETA

TXILEKO EGOERA POLITIKOAREN BERRI EMAN DU ANDOINDARRAK LEHEN ARTIKULU HONETAN



Edurne Ustariz / Txile

Sagardoaren aparra

Agurrik beroena beterritar guztiei. Santiago de Chile-tik idazten dizuet hemengo gertakarien berri emateko asmoz. Ze inporta ote zaien beterritarrei Txile? Agian

ezer gutxi, baina jakiteak ez du lekurik hartzen eta, bestalde, euskaldunek badugu lotura historikoa txiletarrekin.

Eta ez bakarrik Gerra Zibilaren ondorioz Pablo Neruda olerkari unibertsalak mila euskaldun Winnipeg itsasontzian Txileruntz bideratu zituelako. Euskaldunen presentzia nabarmena da XIX. mendearen hasieratik. Kaleen izenak ikusi besterik ez dago: Irarrazabal, Gorbea, Bilbao... Baita politikari eta enpresarioen artean azaltzen diren deiturak hartzen baditugu: Larrain, Urrutia, Uriarte, Eguiguren Irivarren, Egaña, Zavala...

Kontua da, aurreko astean Txileko presidentea aukeratzeko eta bi kamarak berritzeko (Parlamentua eta Senadoa) hauteskundeak egin direla. Dagoeneko entzuna izango duzue komunikabideen bitartez zentro-ekzerreko hautagaia den Michelle Bachelet sozialista izan dela bozkatuena (botoen %45'95). Baita Alianza eskuineko koalizioko Sebastian Piñera Echenique enpresarioak bigarren postua atera duela (botuen %25'41). Eta hala ere, urtarrilaren 15ean bigarren itzulia egin beharko da presidentea zein izango den jaiteko.

Bidean, Joaquín Lavín ultrakontserbadorea (botoen %23'22) eta ezkerreko Juntos Podemos Más koalizioko hautagaia Tomás Hirsch (botoen %5'4) geratu dira. Lavínek iragarri du eskuin aldeko Alianzak bat egingo duela eta bigarren itzulian Piñeraren alde egingo duela lana. Ikusteko dago aliantza horrek Bachelet aurrea hartuko ote dion. Ikusteko dagoen bezala ezkerreko botoak Bacheletengana joango ote diren. Batuketak egitea ez baita hain ximplea, ez eskuintean ez ezkerrean.



Txileko gizartea hauteskondeei begira dago azken aldi honetan.

Euskaldunen presentzia nabarmena da. Kaleen izenak ikusi besterik ez dago: Gorbea, Bilbao...

Sorpresik handiena ordea, legebiltzarrean eta senaduan gertatu da, non zentro-ekzerreko batasun edo baterakundeak gehiengo lortu duen (botoen %51'77). Eta Michelle Bacheletek adierazi duenez, orain baterakunde horrek bide zabala du demokraziak eskatzen dituen aldaketak egiteko, ez baitira legebiltzarra eta senadua oztopo izango aurreko legealdietan bezala. Hitz horiekin gaur egungo sistema binominalaz ari da, eta baita eroldako izenemate automatikoa eta borondatezko botua lortzearen eskaeraz. Bere programan jaso dituen aldaketa proposamenak biak.

Horrenbestez, bigarren itzulian edozein gauza gerta daiteke. Baita eskuin aldeak presidentzia lortzea. Galdera da, nola liteke Michelle Bacheleten arrakasta 56 puntutik 45era jeistea sei hilabetetan? Nola liteke Ricardo Lagos enpresariaren %71aren onarpena jasotzea eta hau ez somatzea jarraipen duen Bacheleten proposamenean? Arazoa Bachelet izango ote?

Hilabete gutxi atzera, Michelle Bachelet giza-fenomeno bihurtu zen. Edozein horretan irakur zitekeen "Bachelet Presidente" edota "Por tí Michelle, me inscribo". Inkestetan 56 puntu lortzera iritsi zen. Sagardoaren aparraren modura igo zen eta igo bezala jaitzi. Zer ikusi ote zuten txiletarrek gaur egun ageri ez dena?

Nire iritziz, txiletarrek Ba-

Bachelet giza-fenomeno bihurtu zen. Edozein horretan irakur zitekeen "Bachelet Presidente"

cheletengan bere arteko bat ikusi zuten. Bere aita militarra Pinochet enpresariaren hil zuten Salvador Allenderen alde azaltzeagatik. Michelle eta bere ama Villa Grimaldín torturatuak izan ziren. Emakume separatua da eta bere hiru seme-alabak bakarrik atera ditu aurrera. Diktaduratik demokraziarako prozesuan indarrak elkartu eta errekonziliatorako bidean sinetsi eta lan handia egindakoa da. Ezin ahaztu Ricardo Lagos enpresariaren Defentsako Ministro bezala normalizazioaren alde egindako lanak... Nire ustetan, hainbat herritarrek isilean eramandako bizitza Bacheletek naturaltasu-

nez egin du publiko. Eta gainetik, sinpatia osoz.

Zein dira arrazoiak orduan fenomenoaren amaierarako, amaitu baldin bada? Laburbilduz sei aipatuko nituzke:

1.- Matxismoa: gizonen artean Bacheleten gobernuko gaitasuna eta aginpidea zailantzan jarri dira.

2.- Baterakunde bera: oposizioak "potxol-sinpatika" izendatu bazuen, bere lantaldeak seriotasunera behartu du gehiegi. Bere naturaltasuna nabarmen hertsatu dute.

3.- Gutxi arriskatu du: hain handia egin zen fenomenoak, kanpaina oso mantso eta konfidaturik hasi zutela. Bazurdi, eztabaidarako gaiak ere oposizioak jarri zain zeudela.

4.- Kanpaina hiritarra. Bacheletek hasieratik zion bere hautaketa hiritarrek egin zutela eta ez alderdiburuek. Jarrera horrek bere balio pertsonalak azpimarratu nahi zituen, baina diseinu-kanpaina honetan telebista erabili ordez ekintza pribatuetan murgildu zen. Eta badakigu telebistatik kanpo gertatzen dena..., ez dela esistitzen.

5.- Lagosengandik urrun: Bacheleten balio pertsonala azpimarratu nahian Lagosengandik distantzia markatu nahi izan zuten. Herentziarik gabeko eskaintza berria, gobernu berria eta amets berria.

6.- Etsaiz nahastu egin ziren: Lavín izan zen kritikarik handienak jaso zituenak Piñerak bidea egiten zuen bitartean.

Hona hemen nola motel daitekeen sagardoa aparra jaisten utziz gero.

GURE IRRATIA BIDE GURUTZEAN

GURE ERRONKA: EUSKARAREN BIZIRAUPENA EUSKARA GALTZEN ARI DEN EREMUAN



Ipar Euskal Herrian euskararen desagertzea onartezina delako zure diru ekarpena beharrezkoa da: Euskadiko Kutxa 3035 0059 81 0590071330

